



**Lan erreforma
geldiarazi
dezagun!**

**Gure
etorkizunaren
alde borrokatu
gaitezen**



www.izquierda-unida.es

**Lan erreforma
geldiarazi
dezagun!**

**Gure
etorkizunaren
alde borrokatu
gaitezen**



www.izquierda-unida.es



Gehiago gara

Gehiago gara

Lan erreforma geldiarazi dezagun! Gure etorkizunaren alde borrokatu gaitezen

PPren erreforma, kaleratu gehiago, soldata gutxiago, lan baldintza latzagoak eta enpresariei botere ia mugagabea ematea da.

Hemendik aurrera, legedia enpresatik irteten da: Enpresariak zure soldata murriztu, jardunaldia eta oporrak aldatu eta lanean burutzen dituzun atazak aldatu ahal izango ditu. Enplegatu publikoak kaleratuak ahal izango dira.

Hau dena, Montoro era gobernuko beste kide batzuk onartu duten bezala, enplegurik ez sortzeko. Guztiz kontrakoa gainera, lanpostuak suntsitzen jarraituko baitu.

PPek onartutako lan erreforma, benetako kontra-erreforma bat da, jadanik urria zen langileen gure enpresarekiko babes legala deuseztatzen baitu.

Kontra-erreforma honek, zera esan nahi du:

- ✎ Kaleratzea errazago eta merkeagoa izango dela. Normalean, lan egindako urte bakoitzeko 20 eguneko indemnitzazioarekin, urtebeteko gehiengoarekin.
- ✎ Enpresariak soldata eta konplementuak murriztu ahal izango ditu. Ordutegia, jardunaldia, txandak eta oporrak ere aldatu ahal izango ditu.
- ✎ Enpresariak zure hitzarmenean edo kontratuan ez datozen beste funtzio eta ataza ezberdinak eskatu ahal izango ditu. Zure lekualdatzea ere, erabaki ahal izango du, hiriz aldatzera behartzera helduz.
- ✎ Enpresariak, azken hiru hilabetetan diru sarreren murrizketa dela eta, edo salmenten murrizketa bat dela eta, langileak kaleratu ahal izango ditu. Bankuek ere, era horretan langileak justifikatuta kaleratu ahal izango dituzte.
- ✎ Administrazio Publikoan lan-kontratu batekin lan egiten baduzu, ERE bat dela medio kaleratu aizan ahalko zara.
- ✎ Inolako aurretiazko baimenik gabe, EREak burutu ahal izango dira.
- ✎ Enpresak ezarritako lan-baldintzak interesatzen ez baldin bazaizkizu, kontratua apurtu ahal izango duzu. Kasu horretan, soilik 20 eguneko indemnitzazioa geratuko zaizu, askoz jota 9 hilabeteko epe batean.
- ✎ Bi hilabetetan lanera 9 egun edo gehiago faltatzekotan, edota lau hilabeteko epean 13 egun edo gehiago faltatzekotan kaleratu ahalko zaituzte nahiz eta faltak gaixotasun justifikatua dela eta izan. Lan istripua eta 20 egun baino gehiagoko baja ofizialak salbu.

Kontra-erreformak ere, indarrean sartu zen data (otsailak 12) baino lehenagoko kontratua izan ere zuzenean jotzen zaitu. Indemnitzazioa, kaleratzekotan, urteko 45 eguneko izango da erreforma indarrean sartu zen egunera arte, baina hortik aurrera 33 eguneko izango da. Indemnitzazio gehienezko denbora tarte 720 eguneko izango da, eta ez 42 hilabetekoa. Otsailaren 12ra arte lan egindako denborarekin, 720 egun baino gehiago tokatzekotan, soilik 720 egun izango dira eta ez benetan tokatzen dena denbora gehiago lan eginagatik.

Enpresa txiki batean lan egiten baduzu, inolako hitzarmen kolektiboren babespean ez zara egongo.

Langabezia kobratzen baduzu eta lanpostu bat ateratzen bazaizu, zure soldataren parte bat geratzen zaizun desenplegu soldatarekin ordainduko duzu.

Beharbada, ez zaude enpresaren erabakiekin ados: Lana utzi eta lan egindako urte bakoitzeko 20 eguneko indemnitzazioa geratzen zaizu, 9 hilabeteko topearekin.

Hau da enpresari handien kontra-erreforma, lan egiten dugunoi krisi hau ordainarazi nahi digutenak.

Ez dezagun ahalbidetu, etsipenerako ez dago espaziorik: Gelditu dezagun lan erreforma!

- ✎ Enplegu egonkor eta kalitatezkoa sortzea posible da. Izquierda Unidak hainbat proposamen zehatze gin ditu ekonomia erreala sustatzeko enpresa txiki eta autonomoei kontratatzeke kreditua eskainiz. Kontsumoa eta inbertsioa sustatzeko neurriak proposatuz, enplegu publiko eskaintza handitzeko eta hezkuntza, osasuna edo dependientzia dutenekiko arreta hobetzeko eta beste zerbitzu publikoak indartzeko asmoz.
- ✎ Neurri guzti hauek, iruzur fiskalaren eta murgildutako ekonomiaren (estatuko ekonomiaren %23 inguru) aurkako borroka indartuz eta gehien dutenek, bankuak eta enpresa handiak, krisi hau sortu dutenak alegia, gehiago ordaintzea ahalbidetuko duen erreforma fiskal bat planteatuz jarri daitezke martxan.

Langabezia gehiago eta soldata txikiagoekin ez gara krisialdi honetatik aterako. Enplegua sortzeko kapaza den krisialdirako irteera soziala badago.

Gure eskubideen defentsan, gure etorkizunaren alde, deituko diren mobilizazio eta ekimenetan parte hartu!

Gehiago gara

